

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako gaiak**

*Lorategi Hiria, Uliako merenderoa, Alde Zaharreko zuntz optikoa, Villa Salia, Zoladura eta galtzaden konponketa,*

#### **Lorategi Hiria**

Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onartu du Loiolako Lorategi Hiria urbanizatzeko proiektua. Proiektuaren helburu nagusia eremuaren hirigintza garapenerako formulatutako Plan Berezia ezarritako zehaztapenak gauzatzeko beharrezkoak diren obrak zehaztea da.

Hirigintzako zinegotzi Nekane Arzallusek nabarmendu duenez, “azken izapidea da inguru horretan lanak hasi ahal izateko”, eta gogorarazi du, gainera, enpresa sustatzaile nagusia hasi dela alde zuzenetik lanak egiten, etxebizitzak lehenbailehen eraikitzen hasteko.

Lorategi Hiria 66.896 m<sup>2</sup>-ko eremua da. Bertan 264 etxebizitza berri eraikiko dira (% 40 babestuak), eta 6.000 m<sup>2</sup> hirugarren sektoreko erabilerearako, ekipamenduetarako, kirol kantxetarako eta aparkaleku baterako erabiliko dira. Gainera, azaleraren % 42 berdeguneetarako izango da. Bide berriak ere sortuko dira, gunea ingurunearekin lotzen laguntzeko. Proiektuaren aurrekontua 16.846.619 eurokoa da.

#### **Uliako merenderoa**

Tokiko Gobernu Batzarrak Uliako Basollua eraikina erabiltzeko administrazio emakida esleitzeko plegua onartu du. Eraikina Uliako Udal Parkearen barruan dago, udal titulartasuneko jabari eta zerbitzu publikoko ondasun bat da, 261,50 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du, 235,10 m<sup>2</sup> erabilgarri beheko solairuan, eta kanpoko espazioak, patioak eta harmailak.

Eraikina kafe-merendero gisa erabili beharko da, eta emakidadunak higiezina egokitzeko 89.744 euroko (+ BEZ) gutxieneko inbertsioa egin beharko du, gorantz hobetu daitekeena.

Araubide ekonomikoari dagokionez, 3.000 euroko gutxieneko kanon finkoa izango du, gorantz hobetu daitekeena; gehi ustiatetik salmenta zifraren (fakturazioa) % 2, BEZik gabe, (hobetu ezina). Ustiapeneko lehen 12 hilabeteak kanonetik salbuetsita egongo dira.

Emakida 10 urterako ematen da, eta, bi aldeek hala adostuz gero, urtez urte luzatu ahal izango da, gehienez ere 5 urtez.

# Prensa oharra

## Nota de prensa

### Alde Zaharreko zuntz optikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak Donostiako Etxegintzari egindako enkargua aldatzea onartu du, konektibitatea hobetzeko Alde Zaharreko zuntz optikoa hedatzeko eta Smart egokitzapenerako jarduketei lotuta.

Aldaketa horrek hasiera batean esleitutako tarifa (681.792 euro) 242.000 eurotan handitzea baino ez dakar, jarduketa auzoko beste eraikin batzuetara zabaltzeko helburuarekin; zehazki, arrazoi teknikoengatik hasierako proiektuan sartu ez ziren 44 atari berrietara.

### Villa Salia

Tokiko Gobernu Batzarrak etxerik gabeko pertsonentzako eguneko zentroa eta familien programa egiteko Villa Salia eraikina gaitzeko lanak amaitzeko exekuzio proiektua onartu du.

Proiektu honen xedea da Villa Saliako birgaitze lanak amaitzeko geratzen diren obrak definitzea, aurreko kontratua kontratistak betebehar nagusia bete ez zuelako suntsiarazi ondoren.

### Zoladurak eta galtzadak konpontzea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko galtzadako zoladurak konpontzeko kontratuaren **1. lotea** Excavaciones Y Transportes Orsa SL enpresari eta **2. lotea** Asfaltia SL sozietateari esleitzea onartu du. Hauek dira kontratuaren ezaugarriak:

- **1. lotea:** 17 asteko egikaritze epea eta 646.795 euroko aurrekontua honako bideetan jarduteko: Borroto kalea; Merkezabal kalea; Oriamendi pasealekua; Baenako Dukea pasealekua; Bera Bera pasealekua; Aldapeta kalea; Lazkano pasealekua; Bizkaia pasealekua; Familia Santuaren kalea; Pio XII plaza; Karlos I (alde bikoitietan); Anoeta pasealekua; Fernando Mugica kalea; Arrasate kalea; Hondarribia kalea; Okendo kalea; Urbieta kalea; Prim kalea; Gernikako Arbolaren pasealekua; Araba parkea; Berio pasealekua; Igara bidea; Arriola pasealekua; Igeldo pasealekua; Cristobal Balentziaga kalea; Aita Orkolaga pasealekua; Begiristain doktoarearen pasealekua.
- **2. lotea:** 23 asteko egikaritze epea eta 569.789 euroko aurrekontua honako bideetan jarduteko: Altza pasealekua; Lauaizeta kalea; Txirrita Bertsolari pasealekua; Trento kalea; Nafarroa hiribidea; Ategorrieta hiribidea (erlojua); Rodil kalea; Ategorrietako galtzada zaharra; Arbola kalea; Jose Elozegi alkatearen etorbidea; Baztan kalea; Zubiaurre pasealekua; San Frantzisko Xabierkoaren kalea; Iruresoro plaza; Tturkoene kalea; Zurriola hiribidea; Lapurdi plaza; Nafarroa hiribidea; Colon pasealekua; Mirakruz kalea; Kale

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Nagusia; José María Soroa kalea; Ramon María Lili kalea; Miguel Imaz kalea; Zubiaurre pasealekua; Galizia pasealekua; Luis Pradera kalea; Luises kalea; Koruko Andre Mariaren kalea; Otxoki pasealekua; Fernando Sasiain kalea; Tolarieta bidea; Joseba Zubimendi kalea; Francisco Gaskue kalea; Telesforo Aranzadi kalea; Moguel Bikenta kalea; Baratzategi kalea; Ubarburu pasealekua; Apostolatu kalea; Martutene pasealekua; Juan XXIII pasealekua; Jose Elozegi alkatearen etorbidea; Arrapide pasealekua.

Donostia, 2023ko apirilak 4